

BORTZIRIETAN UDALEKU IREKIAK ANTOLATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO PLEGU ARAUTZAILEA

1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA IZAERA

1.1.- XEDEA:

Honako hau da kontratu honen xedea: Bortziritan udaleku irekiak antolatzeko, kudeatzeko eta garatzeko zerbitzua kontratatzeke baldintza ekonomiko-administratiboak ezartzea.

Bortziriako Euskara Mankomunitateak (hemendik aitzinera *mankomunitatea*) udaleku irekiak antolatzen ditu 3-12 urte bitarteko haurrek (beti ere Haur Hezkuntzako bigarren zikloan nahiz Lehen Hezkuntzan eskolatuak direnek) aukera izan dezaten aisialdian eta modu ludikoan euskara erabiltzeko, horretarako berariaz prestatutako programazioaren bitartez. Horrez gain, helburu horri gehitu beharra zaio honako balio hauen lanketa: berdintasuna, kulturaliztasuna eta inklusibitatea.

Zerbitzu hori emateko gehienez ere 20 hezitzaile kontratatuko dira. Haurren taldeak osatzeko ratioak honakoak izanen dira:

- 3-6 urte bitarteko haurren taldeetan: 8 hurreko hezitzaile bat.
- 7-12 urte bitarteko haurren taldeetan: 10 hurreko hezitzaile bat.

1.2. IZAERA:

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 30. eta 37. artikuluek ezarritakoaren arabera, zerbitzu kontratu bat da.

Kontratu honen CPV kodea da: 85300000 Gizarte-laguntzako zerbitzuak eta horiei lotutako zerbitzuak

2. ALDERDIEN BETEBEHARRAK

2.1. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK:

Esleipendunaren betebeharrak honakoak izanen dira:

- a) Mankomunitatearekin koordinatzeaz eta komunikatzeaz arduratuko den persona izendatzea. Arduradun horrek titulazio hau akreditatu beharko du:
 - Aisialdiko hezitzaile titulua edo baliokidea.
 - Euskarazko C1 mailako titulazioa.
- b) Udalekuean lan eginen duten hezitzaileak kontratatzea eta langile horien zerrendaren berri ematea mankomunitateari.
 - Herri bakoitzean gutienez hezitzaile arduradun bat izanen da.
 - Hezitzaile guztiek euskarazko C1 maila akreditatu beharko dute, hori ziurtatzen

duen agiria aurkeztuta edo maila horretako ahozko nahiz idatziz proba gaindituta. Egiaztatze proba hori euskara mankomunitateak egin dezake.

- Hezitzaileek honako titulazio hau izan beharko dute:
 - Arduradunek administrazioko C mailari dagokion titulazioa: batxilergoa edo goi mailako lanbide heziketari dagokion titulazioa, edo horien baliokide izan daitekeen bertzelako tituluren bat.
 - Hezitzaile arruntek administrazioko D mailari dagokion titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo horren baliokide izan daitekeen bertzelako tituluren bat.
 - Lehenetasuna emanen zaie aisialdiko hezitzaile titulua duten hautagaiei.
 - Udalekuak hasi ondotik bertze hezitzailearik kontratatuz gero, esleipendunak mankomunitateari jakinarazi egingen dio, eta lehenbailehen akreditatu ezarritako hizkuntza maila baduela, baita eskatzen den bertzelako titulazioa ere.
 - Hezitzaileek egunean 4:30 orduko kontratua izanen dute gehienez ere.
- c) Hezitzaileak kontratatzeagatik sorturiko gastuak ordaintzea (soldatak nahiz gizarte segurantzarekin lotutakoak), “Nafarroako Foru Komunitateko aisia hezitzailearen eta animazio soziokulturalaren sektorearentzako 2023-2026 aldirako hitzarmen kolektiboa” aplikatuz.
- d) Erantzukizun zibileko eta arriskuen prebentziorako aseguruia izatea.
- e) Hezitzaileei programa honetan aritzeko behar den prestakuntza eskaintzea, gutienez gai hauen inguruan: udalekuen funtzionamendu orokorra, formakuntza soziolinguistikoa eta aisialdian euskararen erabilera sustatzearen inguruan, eta lehen sorospenak.
- f) Udalekuetako izen ematea kudeatzea eta izen emateak jasotzea, mankomunitateak horretarako ezarriko dituen irizpideetan oinarrituta.
- g) Udalekuetan parte hartuko duten haurren kuoten kobrantzaz arduratzea:
 - Familiei udalekuetan parte hartzeko kuoten kobrantzaz ardurako da mankomunitateak horretarako araututako ordenantza fiskalean edo, halakorik ez balego, adosturiko irizpideetan xedaturikoaren arabera.
 - Familiek kuotak esleipendunaren kontu korrontean ordainduko dituzte.
 - Udalekuak bukatu ondoren aurkeztu beharreko balorazio memoriarekin batera, esleipendunak mankomunitateri egindako kobrantzen transferentzia egingen dio honek adieraziko dion kontu korrontean. Transferentziarekin batera, esleipendunak mankomunitateari izena eman duten haurren zerrenda helaraziko dio. Bertan, haurren izen emateen datuak eta aplikatutako deskontuak adieraziko dira.
- h) Udaleku irekiak antolatzea, garatzea eta jarraipena egitea, zehatzago:
 - Udalekuetarako programazioa prestatzea, oinarritzat hartuta aipatutako helburuak eta landu nahi diren balioak.
 - Udalekuetako plana eta programazioa jasotzen dituen txostena prestatzea; bertan zehaztuko dira goian aipatutako helburuak eta balioak berariaz lantzeko antolatuko diren jarduerak. Horrez gain, dokumentazio horrekin batera honako informazio hau ere jasoko da: udalekuetan arituko diren hezitzaileen zerrenda eta haien titulazioari buruzko informazioa; irizpide sozialetan hartutako konpromisoak ziurtatzen dituzten agiriak; hezitzaileei eskainitako formakuntzari

buruzko informazioa; Sexu Gaizkileen Erregistro Nagusiaren Ziurtagiria, egiaztatzen duena hezitzaile bakar batek ere ez duela aitzinkaririk (aldaketarik egonez gero, irailaren 4a baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera egiaztatu beharko da); herriz herri izen emandako haurren datuak eta taldeak; kontratatutako begiraleen kopurua 20tik beheitikoa bada, aurrekontu eguneratua. Dokumentazio hori guzia beranduenez ekainaren 26ko 23:59 baino lehen bidaliko du mankomunitatera.

- i) Udalekuen garapen egokirako mankomunitatearekin nahiz lanean arituko diren hezitzaileekin komunikazio egokia izatea, horretarako behar diren baliabide teknologikoak erabilita edota bilerak antolatuta.
- j) Udalekuek irauten duten bitartean gurasoekiko harremana izatea, baita haiei balorazio galdetegiak bidaltzea ere.
- k) Udalekuetako balorazio memoria egitea eta mankomunitateari aurkeztea. Horrekin batera izen emandako haurren behin betiko datuak, aplikatutako deskontuak eta jasotako diru sarrerak azalduko dira. Dokumentazio hori beranduenez irailaren 4ko 23:59 baino lehen aurkeztu beharko du.
- l) Hemen adieraziak ez dauden Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean xedaturiko gainontzeko eskubide eta betebeharrak.

2.2. MANKOMUNITATEAREN BETEBEHARRAK:

Mankomunitatearen gain geldituko dira honako betebeharrak hauek:

- a) Udalekuen berri ematea horretarako ikusten dituen bideak erabiliz.
- b) Udalekuetan erabiliko diren egoitzak eta espazioak eskatzea eta lortzea, eta horien berri ematea enpresa esleipendunari.
- c) Behar bereziak dituzten neska-mutikoen parte hartzea bermatzea, haien beharrak kontuan hartuta (eta betiere profesionalek egindako txosten teknikoetan oinarrituta). Gehienez ere 3 plaza erreserbatuko dira behar bereziak izan eta berariaz hezitzaile bat behar duten neska-mutikoentzat. Plaza horiek bete gabe gelditzen badira, haur talde gehiago eskainiko dira (gehienez ere 20).
- d) Parte hartzaileek udalekuetan izena emateagatik ordaindu beharreko tarifak ezartzea.
- e) Esleipendunari izena ematen duten haurren familien kuota kobrantzarekin laguntzea:
 - Mankomunitateak izena ematen duten haurrek udalekuetan parte hartzeko irizpideak betetzen dituela ziurtatzen lagunduko dio esleipendunari.
 - Mankomunitateak behar bereziak dituzten haurrek eskaturiko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen lagunduko dio esleipendunari.
 - Mankomunitateak zehazturiko egoera zaurgarrian dauden familiek eskaturiko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen lagunduko dio esleipendunari.
- f) Esleipendunarekiko harremana eta komunikazioa, eta kontratu honen garapenarekin izan daitezkeen zalantzak argitzea.
- g) Enpresa esleipendunari ordaintzea.
- h) Hemen adieraziak ez dauden Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean xedaturiko gainontzeko eskubide eta betebeharrak.

3.- ESLEIPEN PROZEDURA.

Plegu honi dagokion kontratazioa Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezarritakoaren arabera esleituko da, hau da, 72. artikuluan xedaturiko prozedura irekiaz eta 139. artikuluan xedaturiko izapide aurreratuaz.

4.- KONTRATAZIO ORGANOA ETA KONTRATUAREN KUDEAKETA UNITATEA.

Zerbitzu kontratu honen kontratazio organoa Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzailea da. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Idazkaritza da kudeaketa unitatea.

5.- EPEA.

Kontratua egikaritzeko epea kontratua sinatzen denetik 2025eko irailaren 30 bitartekoa izanen da.

Zerbitzua udako oporraldian emanen da, zehatzago:

- Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin ekainaren 30etik uztailaren 24ra, biak barne 09:00etatik 13:00etara (kontratua luzatuz gero, data hauek eguneratuak izanen dira).
- Lesakan uztailaren 14tik abuztuaren 8ra, biak barne, 09:00etatik 13:00etara (kontratua luzatuz gero, data hauek eguneratuak izanen dira).

Kontratua ondoren zehazten den moduan luza daiteke, beranduenez 2029ko irailaren 30 arte:

- Lehen luzapena: 2026ko martxoaren 1etik 2026ko irailaren 30era.
- Bigarren luzapena: 2027ko martxoaren 1etik 2027ko irailaren 30era.
- Hirugarren luzapena: 2028ko martxoaren 1etik 2028ko irailaren 30era.
- Laugarren luzapena: 2029ko martxoaren 1etik 2029ko irailaren 30era.

Luzapena urteka erabakiko da, berariaz, indarrean dagoen kontratua amaitu baino 7 egun baliodun lehenago, betiere Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 45. artikuluan xedatutakoa betez.

6.- LIZITAZIO AURREKONTUA, ZENBATETSITAKO BALIOA ETA KREDITUA EGOTEA.

6.1.- LIZITAZIO KOPURUA:

Kontratuaren lizitazio kopurua gehienez ere 42.200,00 eurokoa da, BEZ kanpo. Aurrekontu horretatik goitiko proposamenak baztertu egingen dira.

6.2.- ZENBATSITAKO BALIOA:

Kontratu hau bertze lau urtez luzatzen ahalko da. Kasu horretan, kontratuaren balio zenbatetsia, BEZ aparte eta urtez urte, honela geldituko da:

- 1. urtea (2026): 42.200,00 €
- 2. urtea (2027): 42.200,00 €
- 3. urtea (2028): 42.200,00 €
- 4. urtea (2029): 42.200,00 €

Horrela bada, kontraturako zenbatsitako balioa (luzapen guztiak barne) 211.000,00 €-koa da.

6.3.- KREDITUA EGOTEA:

Kreditua Bortziriako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2025erako onartuko duen aurrekontuaren "Udalekuak" (1 3350 2260902) partidari kontsignatuko da.

Urte anitzeko gastuak baimentzeko eta konpromisoa hartzeko, kasuan kasuko aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezarritako kreditua bete beharko da.

Esleipena eta dagozkion luzapenak egiteko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da kontratutik eratorritako betebeharrak dagozkion ekitaldian finantzatzeko.

7. - KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak nahiz atzerritarrak izan, kontratatzen ahalko dute Administrazioarekin, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezarritako kontratatze debeku edo bateraezintasunik ez badute, interes gatazkarik ez badute eta kontratua gauzatu ahal izateko gaitasun ekonomiko, finantzario eta profesional nahikoa egiaztatzen badute.

Pertsona juridikoak badira, kontratuen esleipendunak izaten ahalko dira, baldin eta eman behar dituzten zerbitzuak berez dagozkien helburuen, arloaren edo jardueraren barruan badaude, beren Estatutuen edo sortze arauen arabera.

Aldi baterako elkarteetan bildutako enpresek kontratatu ahal izanen dute; horiek solidarioki behartuta egonen dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, iraungi arte kontratutik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko nahikoa ahalmenekin, kopuru handiko kobratzeak edo ordainketak egiteko ematen ahal diren ahalmen mankomunatuak baztertu gabe. Lizitazioaren eraginetarako, aldi baterako elkartuta aurkeztuko diren enpresek beren kideen izenak eta haien egoerak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren parte hartzea ere; horrez gain, adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa beren gain hartzen dutela kontratua esleitzen bazaie.

Halaber, haiekin batera parte hartuko duten lizitatzailak kontratatu ahal izanen dituzte, eta horiek ere solidarioki behartuta egonen dira. Partehartze hori dokumentu pribatua aurkeztuz formalizatuko da, eta, han, honako hauek adieraziko dira: elkarrekin aurkezteko nahia; horietako bakoitzak zer-nolako parte hartzea izanen duen, eta ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena, kontratutik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko nahikoa ahalmenekin, kopuru handiko kobratzeak edo ordainketak egiteko ematen ahal diren ahalmen mankomunatuak baztertu gabe. Halaber, agiri honetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkeztzen duten enpresek ezin izanen dute banakako proposamenik aurkeztu.

8.- KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA.

Kontratua gauzatzeko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako dokumentazio hau aurkeztuz frogatuko da:

- Erakunde lizitatzailleak negozioen bolumen orokorra egiaztatu beharko du, kontratuaren xede diren jardueren arloan; gehienez ere eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietakoa, jarduerak noiz sortu edo hasi diren.

9- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA.

Gaitasun teknikoa honako dokumentu hauek aurkeztuz frogatuko da:

- Udalekuetan lan egingen duten gutienez bi langileri buruzko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak.
- Erakunde lizitatzailleak azken hiru urteotan kontratu honen helburu diren programen antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuak eman izana, honakoak zehaztuz: zerbitzuaren edo kontratuaren izendapena, zenbatekoa, data, iraupena eta zein entitateri eman zaion zerbitzua.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

10.1.- LEKUA ETA EPEA:

Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izanen du. Halaber, lizitatzailleek ezinen dute bertze batzuekin aldi baterako elkarerik sortu proposamena aurkezteko, proposamena bakarrik ere aurkeztu badute. Bertzalde, ezin izanen dira egon talde horietako batean baino gehiagotan. Arau hori urratuz gero nahiz lotura duten enpresetan aldi berean eskaintzak aurkeztuz gero, ez da onartuko berak sinatutako proposamen bat bera ere.

Proposamenak aurkeztuz gero, lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen du lizitazioa arautzen duen agiriaren baldintza guzien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Lizitazioan interesa dutenek Kontratazio Atariaren bidez lortuko dute baldintzei buruzko informazio gehigarria eta gainerako dokumentazio osagarria, eskatu eta hiru eguneko epean.

Lizitatzailleak Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren (PLENA) bidez aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak.

Proposamenak aurkezteko epea hau da: iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta HAMABORTZ EGUN BALIODUNeko epean.

10.2.- FORMA ETA EDUKIA:

Behar bezala betetako onarpen eskaerarekin batera, proposamenak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira, honela identifikatuta:

- 1. gutun-azala: Administrazio agiriak.
- 2. gutun-azala: Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

- 3. gutun-azala: Formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzak honako dokumentu hauek izanen ditu:

1. GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO AGIRIAK.

Honako dokumentu hauek sartu behar dira nahitaez:

- a) **Aurkezten diren lizitatzaillearen edo lizitatzaillearen identifikazioa**; pertsona fisikoak izaten ahal dira, taldekako parte hartzeak, pertsona juridikoak, enpresaburuen aldi baterako elkarteak. Halaber, lizitatzaillearen helbide elektroniko bat aurkeztuko da, I. eranskinean ageri den ereduari jarraituz.
- b) **Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena**, edo hala badagokio, haren ordezkariarena, Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraziz. Erantzukizunpeko adierazpena egitean, agiri honen II. eranskinean ageri den ereduari jarraituko zaio.
- c) **Bateratuta edo enpresen aldi baterako elkartean parte hartzen duten lizitatzailleak** aurkezten badute proposamena, horietako bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, eta dokumentu pribatu bat erantsiko da, adieraziz elkartuta parte hartu nahi dutela eta zer ehunekotan parte hartzen duen bakoitzak, eta ordezkari bat edo ahaldun bat izendatuz, kontratua iraungi arte hartatik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko ahalmenekin. Parte hartuko duten enpresek nahiz ahaldun horrek sinatu beharko dute idatzia.
- d) **Azpikontratazioa** gertatuz gero, lizitatzailleak azpikontratatuaren zerrenda bat aurkeztu beharko du, baita dokumentu bat ere, adieraziz horiekin konpromiso formal bat dagoela kontratua gauzatzeko.

2. GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKAGARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEekin LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA.

Lizitatzailleak gutun-azal honetan aurkeztu beharko du plegu honetan biltzen diren eta balio judizioen mende dauden esleipen irizpideak balioesteko eta neurtzeko dokumentazioa. Zehazki, udalekuak kudeatzeko proiektua. Esleipen irizpideetan zehazten diren alderdi guztiak bilduko ditu (13. klausula).

Gutun-azal honetan ezin izanen da eskaintza ekonomikoari edo formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideei buruzko erreferentziarik egin.

3. GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKAGARRIAK DIREN IRIZPIDEekin LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA.

Gutun-azal honetan agiri hauek sartu behar dira:

- Eskaintza ekonomikoa, III. eranskineko ereduaren arabera beteta.
- Klausula sozialari buruzko konpromisoa, III. eranskineko ereduaren arabera beteta.

Lizitaziorako onetsi den aurrekontua baino handiagoak diren proposamenak baztertu egingen dira. Gehienez ere bi dezimal erabiliko dira. Eskaintzan biltzen diren kopuruei dagokienez, letraz idatzitako kopuruak lehenetsiko dira eta ez zifratan idatzitakoak.

Proposamena lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatu beharko du. Batera parte hartzen duten lizitatzailleen kasuan, parte hartzaile guzi-guziek sinatuko dute edo beren ordezkariak.

11.- OHI BAINO MERKEAGOA DEN ESKAINTZA.

Pleguan adierazitako parametroen arabera ezohiko bajatzat jo daitezkeen eskaintzak identifikatzen badira, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 98. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

Edozein moduz, eskaintzak ere baztertuko dira egiaztatzen bada ohi baino merkeagoak direla azpikontratazioaren araudia urratzeagatik edo ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak nazional edo nazioartekoak ez betetzeagatik, indarrean dauden hitzarmen sektorialak ez betetzea barne hartuta.

12.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Kontratazio mahaia irekiko ditu proposamenak eta beteko ditu legeak ezarritako gainerako funtzioak. Mahaia honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Leire Mitxelena Gamio, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria. Ordezkoa: lehendakariak izendatzen duena.

Mahaikideak:

1. mahaikidea: Patri Arburua Etxeberria, mankomunitateko euskara teknikaria. Ordezkoa: mahaikideak izendatzen duen arlo bereko profesionala.

2. mahaikidea: Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak izendatutako gizarte hezitzailea. Ordezkoa: Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak izendatutako gizarte hezitzailea.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte, mankomunitateko idazkaria. Ordezkoa: hark izendatzen duen Bortzirietako udal idazkaria.

Kontratazio mahaia, ekitaldi pribatuan, lizitatzailleek 1. GUTUN-AZALEAN behar den denboran eta moduan aurkeztutako administrazio agiriak kalifikatuko ditu, egiaztatzeko onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela. Mahaia gutxienez 5 egun naturaleko epea emanen du akatsak moldatzeko edo dokumentazioa osatzeko. Akatsak moldatzeko epea pasatutakoan, eskatutako informazioa osatu edo moldatu ez bada, lizitatzaillea prozeduratik kanpo geldituko da, eta idatziz jasoko da kanporatzea.

Administrazio agiriak kalifikatutakoan, kontratazio mahaia onartutako lizitatzailleen 2. GUTUN-AZALA irekiko du ("Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa") eta dokumentazioa balioetsiko du esleipen irizpideen arabera, aipatutako

irizpideen bidez behar bezala neurtuta. Gutunazal honetan aurkeztu beharreko dokumentazio edo agiriren bat falta bada, edo honek zalantzak sortzen baditu, ukitutako pertsonari eskatuko zaio aurkeztu dituen dokumentu eta agiriak zuzendu edo osatzeko. Horretarako borts eguneko epea emanen zaio gutxienez. Zuzentzeko epea iraganik, eskatutako informazioa osatu ez bada, lizitatzaillea prozeduratik kanpo utziko da, eta agiri bidez jasoko da horren berri.

Lizitatzaille guziei gutxienez 3 egun lehenago jakinaraziko zaie non eta zer egun eta ordutan irekiko den 3. GUTUN-AZALA, hau da, publikoki formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

Kontratazio mahaia, eskaintzaren zati hori irekitzen hasi baino lehen, hor dauden pertsonen jakinaraziko die lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioaren emaitza, adieraziz zein lizitatzaille onartu diren eta zein ez, baita zergatik ez diren onartu ere; gainerako irizpideetan lortutako balioespenaren berri ere emanen dute.

Kontratazio mahaia esleipen proposamena jasoko duen lizitatzaileri horren berri emanen dio.

13.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

Esleipenduna hautatzeko, honela balioetsiko dira proposamenak:

2. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa. Gehienez ere 50 puntu.

Proposaturiko udalekuen proiektua: balioespena eskaintzetan ageri diren proposamenetako azterketa eta kalitate mailaren arabera egingen da, atal bakoitzari buruz, honela banatuta:

- a) Helburuak: gehienez ere 3 puntu.
- b) Programazioa: gehienez ere 35 puntu.
 - Partaideen euskararen ahozko gaitasuna eta euskararen erabilera aisialdiko jardueren bidez lantzeko eta hobetzeko erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 8 puntu.
 - Saioen antolaketa eta funtzionamendua: gehienez ere 5 puntu.
 - Kulturantzatasuna lantzeko berariaz erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 5 puntu.
 - Hezikidetzat eta genero berdintasuna lantzeko berariaz erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 5 puntu.
 - Programazioa eta jarduerak haur taldeen adin ezberdineei egokitzeko erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 4 puntu.
 - Parte hartzaileen garapen kognitiboa, psikomotorea, afektiboa eta soziala lantzeko erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 4 puntu.
 - Parte hartzaileen arteko komunikazioa, harremanak, talde lana eta errespetua lantzeko erabiliko diren teknikak, jolasak, baliabideak eta jarduerak: gehienez ere 4 puntu.
- c) Programa honetan lanean arituko diren aldean (mankomunitatea, esleipendun enpresa

eta bertako teknikari nahiz hezitzaileak, etab.) arteko koordinazioa eta komunikazioa: gehienez ere 3 puntu.

d) Familiarikiko harremana: gehienez ere 3 puntu.

- Familiarikiko eguneroko harremana eta komunikazioa: gehienez ere 1,5 puntu.
- Parte hartzaileen nahiz familien asebetetze maila neurtzeko modua: gehienez ere 1,5 puntu.

e) Jarraipena eta ebaluazioa: gehienez ere 6 puntu.

- Egitasmoaren aldian aldiko jarraipena egiteko modua: gehienez ere 3 puntu.
- Bukaerako ebaluazio memoria egiteko modua: gehienez ere 3 puntu.

3. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

Eskaintza ekonomikoa: gehienez ere 40 puntu.

Eskaintza ekonomikoen balioespena ondotik adierazten den formula aplikatuz egingen da. Gehienez ere bi dezimal erabiliko dira. Eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko, aurkeztutako eskaintza merkeenari puntuaziorik altuena esleituko zaio (40 puntu), eta gainerakoei alderantzizko hiruko erregela baten formula aplikatzearen ondoriozko puntuazioa.

Irizpide sozialak: gehienez ere 10 puntu.

Kontratuan parte hartzen duten langileei genero berdintasunaren arloko eskubideei buruzko sensibilizazio eta prestakuntza eskaintzeko konpromisoa.

- Prestakuntza ikastaroak edo jardunaldiak udalekuak hasi baino lehen egin beharko dira eta prestakuntza ziurtagiriek egiaztatuko dira.
- Puntuazioa: prestakuntza ikastaro edo jardunaldietako 2 ordu konputagarriko puntu 1 (gehienez 10 puntu).
Oharra: ordu konputagarriak dira ikastaroko ordu kopuruaren eta ikastarora joaten diren langileen kopuruaren arteko biderketa. (Adib.: 5 langileri emandako 2 orduko ikastaro bat: $2 \times 5 = 10$ ordu konputagarri, beraz, guzira 5 puntu).
- Irizpidea betetzen dela egiaztatzeko, prestakuntza ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, ekainaren 26a baino lehen aurkeztuko den dokumentazioarekin batera.
- Irizpidea betetzen dela justifikatzen ez bada, eta enpresa esleipendunak bertan puntuazioa lortu badu, pleguan aurreikusitako zigorak ezarriko dira.

14.- BERDINKETA DESEGITEKO IRIZPIDEAK.

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, honako irizpide hauek erabiliko dira berdinketa desegiteko:

a) Genero berdintasunaren arloan jardunbide onak egin izana frogatzea.

b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena, betiere enpresa edo profesionalak bere plantillan langileen ehuneko 2 baino gehiagoko portzentajea badu desgaitasun batekin, kaudimena frogatzeko unean.

- c) Laneratze enpresaren izaera izatea, Laneratze enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearekin edo une horretan indarra duen araudiarekin bat.
- d) Behin-behineko langileen portzentaje txikiena izatea, betiere %10 baino gehiagokoa ez bada.
- e) Irabazi asmorik gabeko erakundea izatea, nortasun juridikoa duena, izaera soziala edo asistentziala duten prestazioei dagozkien kontratuetan.
- f) Bidezko merkataritzako erakundea dela aitortua izatea, kontratuaren xedea bidezko merkataritzaren alternatiba duten produktuak direnean.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu aitzineko irizpideak aplikatu eta gero, zozketa bidez ebatziko da. Berdinketa desegiteko irizpideak aplikatzeko, 5 egun naturaleko epean dagokion dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie ukitutako enpresa lizitatzailerei.

15.- ESLEIPENDUNAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Kontratazio mahaiak esleipen proposamena jakinarazten duenetik gehienez ere 7 egun naturaleko epean, lizitatzailiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Lizitatzailaren nortasuna eta, hala badagokio, proposamenaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatze dokumentua edo dokumentuak:

- Lizitatzaila pertsona fisikoa edo enpresaburu indibiduala bada, Nortasun Agiri Nazionala (edo araudiaren arabera agiri hori ordezkatzeko duena) aurkeztu beharko du.
- Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, sortze edo osatze akta, egun indarrean dauden estatutuak eta, hala badagokio, Erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko ditu.
- Bertze pertsona batzuen izenean aurkeztu direnek edo sinatzen dutenek notario ahalorde bat aurkeztu beharko dute, non adieraziko baita dagokion erregistroan inskribatuta dagoela, baldin eta aitzineko paragrafoan aipatutako eskrituran agertzen ez bada, baita ahalduaren Nortasun Agiri Nazionala edo araudiaren arabera hori ordezkatzeko duen dokumentua ere.
- Eskaintza bateratuta aurkeztu duten lizitatzailak badira, horietako bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko ditu; dokumentu pribatu batean, sinatzen duten enpresaburuaren izenak eta egoerak, bakoitzaren parte hartzea adierazi beharko dute, eta Administrazioaren aitzinean guzien ordezkari osoa izaneko duen pertsona edo erakundea izendatu. Dokumentu hori elkartutako lizitatzailen bakoitzak sinatu beharko du edo bakoitzaren ordezkariak.

Erantzukizuna beti izaneko da solidarioa, eta kontratutik sortzen diren betebeharren multzoa banaezina izaneko da.

b) Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Elkarrekin parte hartzen duten enpresaburuak aurkeztu badira, elkartutako erakunde bakoitzak berea aurkeztu beharko du.

c) Baldintza agiri honetan eskatutako gaitasun ekonomiko eta finantzarioa, eta tekniko eta profesionala egiaztatzen dituen dokumentazioa.

d) Lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baita indarreko legeek

ezartzen dituzten segurtasunaren, lan osasunaren eta lan arriskuen prebentzioaren arloko obligazioak betetzen dituela gaur egun. Aldi baterako helburu horrekin aurkezten diren enpresaburuen elkarteek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak badira, elkarte horretako kide bakoitzak aurkeztu beharko du aipatutako adierazpen hori.

e) Ogasunek (Nafarroako Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiri positiboak, non adierazten baita lizitatzailleak zerga betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela. Ziurtagiri horiek, gehienez ere, proposamenak aurkezteko epea iraungi baino 6 hilabete lehenago eginak izan behar dute. Aldi baterako helburu horrekin aurkezten diren enpresaburuen elkarteek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak badira, elkarte horretako kide bakoitzak aurkeztu beharko ditu aipatutako egiaztagiri horiek.

f) Lizitatzailleak Enplegu Zentro Berezietan edo Gizarteratze Zentroetan kontratatu nahi baditu kontratuaren helburu diren zerbitzueta batzuk, azpikontratatuakoen zerrenda zehatza aurkeztu beharko du, baita jatorrizko dokumentu bat ere, non adieraziko baita konpromiso formal bat dagoela enpresa horiekin eta kontratuaren zer zati azpikontratatu behar den enpresa bakoitzarekin.

g) Jarduera Ekonomikoen Zergan izena emana izatearen eta ordaindua izatearen ziurtagiria.

Epe horretan dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzaillea prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren prezioaren % 2aren baliokidea den zigorra ordaindu beharko du, baita ehuneko hori gainditzen duen guztiaren kalte galeren ordainketa osagarria ere.

16.- ESLEIPEN PROPOSAMENA.

Kontratazio mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, esleipen proposamena eginen dio kontratazio organoari. Proposamenak onargarria den proposamen bat egin duten pertsonen lehentasun ordena adieraziko du, esleipen irizpideak aplikatuz lortu duten puntuazioarekin batera.

Esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko esleipen kontratuaren ebazpena onartzen ez den arte.

17.- ESLEIPENA.

a) **ESLEIPEN BALDINTZATUA:** dagokion ekitaldian kontratu honetatik eratorritako gastuak finantzatzeko aurrekontuan partida egokia eta nahiko egoera baldintzatua egonen da esleipena. Horrela bada, kreditu nahikoa egone zean, esleipena ez da burutuko, hori guztia

b) Esleipena: kontratazio organoak kontratua esleitzeko ebazpena emanen du dagokion

ekitaldiko aurrekontuan kontratu honetatik eratorritako gastua finantzatzeko partidan kreditu nahikoa kontsignatu eta hilabeteko epean, formulekin kuantifikagarria den eskaintza jende aitzinean irekitzen den egunetik kontatzen hasita. Ebazpen hori arrazoitua izanen da, eta gutxienez azalduko du zergatik ukatu diren eskaintzak eta bakoitzaren ezaugarriak eta abantailak.

c) Kontratua burutzea: kontratua esleitzean, burutu egingen da. Esleipen ekintzaren eraginkortasuna bertan behera geldituko da 10 egun naturalez, esleipena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Esleipen ekintza bertan behera geldituko da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat jarritz gero, erreklamazio hori ebatzi arte. Halaber, lizitazio deialdian eskaintza bakarra aurkeztu bada, ez da aplikatuko atal honetan aurreikusitako etete epea eta prozedura izapidetzen jarraitu ahal izanen da.

d) Esleitu gabe uztea: Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikulua ezarritakoari jarraituz, kontratazio organoak, modu arrazoituan, esleitu gabe uzten ahal du prozedura.

e) Esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea: adostu eta gero, lizitazioko parte hartzaileei esleipenaren berri emanen zaie, eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

18.- BERMEAK.

Kontratua formalizatu baino lehen, esleipendunak esleipenaren zenbatekoaren % 4 utziko du gordailuan mankomunitatearen alde. Bermea kontratugilearen eginkizunak betetzeari atxikita geldituko da, kontratua bukatu arte. Halaber, berme hori konfiskatu ahal izanen da, baldin eta kontratua bertan behera uzten bada kontratugileak hura ez betetzeagatik, egiaztatu diren kalte ordainak estaltzeko behar den kopuruan. Bermea Kontratu Publikoen Foru Legearen 70.3 artikulua ezartzen dituen moduetan osatu ahal izanen da.

19.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua administrazio agirietan formalizatuko da, gehienez ere 10 egun naturaleko epean esleipena bertan behera uztearen epearen bukaeratik kontatzen hasita. Horren aitzinetik, esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, gehienez ere bortz egun naturaleko epean esleipena jakinarazi den egunetik:

a) Kontratutik eratortzen diren betebeharrak betetzeko bermea mankomunitatearen alde gordailutu izanaren egiaztageria.

b) Aldi baterako enpresa elkarte sortuz gero, kontratua iraungi arteko iraupena duten sortze eskriturak eta elkarte horren IFK.

Kontratugileari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik kontratu formalizatzen ez bada, kontratazio organoak kontratua bertan behera uztea erabakitzen ahal du, interesdunak erran

beharrekoa aditu eta gero; kontratugileak kontratuaren zenbatekoaren % 5aren baliokidea den zigorra ordaindu beharko du eta ehuneko hori gaitzitzen duen guziaren kalte galeren ordainketa osagarria; bertzela, mankomunitateak luzaezina den bertze epe bat ematen ahal dio.

20.- PREZIOA ORDAINTZEA ETA FAKTURAK EGITEA.

Kontratugileak emandako zerbitzuak kobratzeko eskubidea izanen du, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 152. artikuluan, hurrengoetan eta bat datozenetan eta agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Esleipenaren xede den diru kopuru guziaren ordainketa honela egingen da urtero:

- 1. zatia, gastu osoaren % 40, udalekuak hasten direnean eta programazioa, hezitzaileen zerrenda... aurkezten dutenean. Hemendik aitzinera haurrek zerrendak, familiek ordaindutakoa... sar daiteke.
- 2. zatia, gastu osoaren % 40, udalekuak bukatzen direnean.
- 3. zatia, gastu osoaren % 20, Dindaia Fundazioak balorazio bilera egin, mankomunitateari azken memoria aurkeztu eta familiek ordaindutako kuotak mankomunitateari itzuli ondotik.

Matrikulazio epearen ondotik talde gutiago sortuz gero edo hezitzaileen kontratazioetan aldaketak izanez gero, gehiengo prezioari deskontatu egingen zaio dagokien hezitzaileen kostua.

Esleipendunak FACE faktura elektronikoa aurkeztu beharko du.

Ordainketa banku transferentzia bidez egingen da esleipendunaren kontura, Bortziriako Euskara Mankomunitateko erregistro elektronikoan faktura edo kontratu osoa egin dela egiaztatzen duen agiri baliokidea jasotzen denetik hogeita hamar egun naturaleko epean, hori guztia Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeko 155 artikuluan xedaturikoaren arabera.

Kontratuaren prezioa ezin izanen da berrikusi, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeko 109. artikuluan xedatutakoaren arabera.

21.- KOORDINAZIOA MANKOMUNITATEAREKIN.

Erakunde esleipendunaren eta mankomunitatearen arteko koordinazioa enpresak izendatutako langilearen eta mankomunitateko teknikariaren artean izanen da.

22.- KONTRATUA GAUZATZEA.

a) Kontratua kontratazio agiri honetan ezartzen denaren arabera gauzatuko da.

b) Erakunde esleipendunak kontratu hau gauzatzeko erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan harremanik eskuratuko mankomunitatearekin, kontratua esleipendurari bakarrik baitagokio.

Beraz, erakunde esleipendunak bete beharko ditu bere langileekiko betebeharrak, lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta Lan Arriskuen Prebentzioan. Esleipendunak betebeharrak horiek betetzen ez baditu, edo hark izendatutako langile teknikoek segurtasunaren arloko xedapenak urratzen badituzte, mankomunitateak ez du horretan inolako erantzukizunik izanen.

23.- GAUZATZE BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikulua ezarritakoa aintzat hartuta, honako hauek joko dira espezifikoki gizarte izaerako baldintzatzat:

23.1.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:

Esleipendunak hizkuntza irizpide hauek bete beharko ditu:

a) Langileen hizkuntza gaitasunari dagokionez, euskarazko C1 mailako gaitasuna egiaztatuko da.

b) Ahozko jardunari dagokionez:

- Hezitzaileekin nahiz mankomunitatearekin izanen den ahozko harremana (bileretan, telefonoz...) euskaraz izanen da.
- Zerbitzua eta parte hartzaileekiko harremana euskaraz izanen da, hortaz partaideekiko ahozko jarduna, bozgorailu bidezko mezuak, erabiliko diren kantuak, etab. euskaraz izanen dira.
- Gurasoekiko harremanean nahiz programarekin lotutako bertatik bertarako bertze edozein harremanetan (erabiltzen diren instalazioetako langileekin, materiala erosterakoan eta oro har edozein herritarrekin izanen den harremanean) lehen hitza euskaraz izanen da jarduera garatzen den bitartean, betiere herritarren hizkuntza eskubideak bermatuta.

c) Idatzizko jardunari dagokionez:

- Mankomunitatearekiko idatzizko harreman guzia (aurkeztu beharreko planak eta dokumentuak, e-posta bidezko mezuak, fakturak eta gainerakoak) euskaraz izanen dira.
- Hezitzaileekiko ahozko nahiz idatzizko harremanak (telefono deiak, bilerak, prestakuntza saioak, e-posta nahiz sare sozialen bidezko mezuak, planifikazioarekin eta programazioarekin lotutako dokumentuak, bilera deiak eta aktak, kontratuak eta nominak, etab.) euskaraz izanen dira.
- Jarduera honetan erabiliko diren ageriko elementu idatziak (oharrak, errotulazioak, jardueretarako eta jolasetarako erabiliko diren testuak edo bertzelako edozein idatzi) euskaraz izanen dira.
- Gurasoekiko harreman idatzia (emanen zaizkien oharrak edo bertze bideetatik bidaliko zaizkien mezuak, balorazio galdetegiak, etab.) euskaraz izanen da. Ele biz izatea baloratzen denean, euskarari lehentasuna emanen zaio.

23.2.- BERDINTASUN IRIZPIDEAK:

a) Enpresa kontratugileak 50 langile baino gehiago baditu martxoaren 22ko 3/2007 Lege

Organikoan (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako) xedatutako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazio eragingarria egiaztatu beharko ditu.

- b) Kontratua gauzatzean sortzen den edozein dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan, enpresa edo erakunde esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen edozein diskriminazio irudi edo estereotipo sexista saihestu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta pluraltasuna erakusten dituen irudia sustatu genero rol eta identitateetan.

23.3.- LANGILEEN KONTRATAZIO IRIZPIDEAK:

- a) Indarrean dauden arauzko lege xedapen konbentzionalak, lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta lan segurtasunaren eta osasunaren arloan; eta, bereziki, azken hitzarmen kolektibo sektorialak kontratugilearen jarduerari dagokion sektoreko eremu baxuenekoa ezarritako baldintzak.
- b) Desgaitasuna. Enpresa kontratugileak 50 langile edo gehiago baditu guzira, egiaztatu beharko du gutxienez bere langileen %2k %33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela.

24.- KONPROMISOAK BETE IZANA EGIAZTATZEA ETA GAUZATZE BALDINTZAK.

- a) Konpromisoak betetzea:
- Mankomunitateak egokitzen jotzen dituen dokumentazio eta datu guztiak eskatu ahal izanen dizkio esleipendunari, egiaztatze bere eskaintzan bildutako konpromiso guztiak betetzen ari dela. Ikuskaritza lanak ere egin ahal izanen ditu ondorio beretarako.
 - Kontratugileak bere langile guziei jakinarazi beharko die kontratu dokumentuaren ondorioz zer konpromiso hartu dituen gizarte arloan.
- b) Gauzatze baldintza bereziak betetzea.
- Enpresa esleipendunak 50 langile baino gehiago baditu, kontratua sinatu eta 10 egun balioduneko epean, kudeaketa unitateari dokumentu bat bidali beharko dio, enpresa osatzen duten langileen kopurua adieraziz, eta, halaber, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako) xedatutako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazio eragingarria egiaztatzen duen dokumentazioa igorri beharko dizkio.
 - Hizkera ez-sexista erabiltzen dela bermatzeko, enpresa esleipendunak kudeaketa unitatearen oniritzia beharko du kontratua gauzatzean kanpo hedapenerako sortzen den edozein dokumentazio, publizitate, irudi edo material hedatu baino lehen. Horretarako, aitzinetik aipatutakoaren kopia edo argazkiak aurkeztuko ditu esleipendunak.
 - Enpresa kontratugileak, guzira, 50 langile edo gehiago baditu, dokumentuen bidez egiaztatu beharko du gutxienez bere langileen %2k %33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela. 10 eguneko epea izanen du esleipena jakinarazi zen egunetik.
 - Lan munduan sartzeko arazoak dituzten langileak kontratatu direla frogatzeko, lan kontratuak eta Gizarte Segurantzako TC1 eta TC2 likidazio dokumentuak aurkeztu beharko dira, lanak gauzatzen diren hilabeteetan zehar.

25.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratu aldaketak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 114., 115., 143. eta 144. artikuluek ezarritakoaren mende egonen dira.

26.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA.

Kontratutik sortzen diren eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati lagatzen ahal zaizkio edo azpikontratatzeko ahal dira, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 108. eta 107. artikuluek hurrenez hurren ezarritakoaren arabera.

27.- ARAU HAUSTEEI ETA ZIGORREI BURUZKO ARAUDIA.

a) Zigorrak ezartzea: kontratugileak agiri honetan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean adierazitako baldintza edo betekizunen bat betetzen ez badu, mankomunitateak, interesdunak erran beharrekoa aditu eta gero, ondorengo ataletan adierazten diren zigorrak ezarriko ditu, horiek ekarri dituzten kausekin bat etorritik.

b) Zigorrak ezartzea ekartzen duten jarduerak: kontratuari dagokionez, kontratugilearen ekintza edo ez-egite guztiak joko dira zigorra ezartzeko jardueratzat, baldin eta agiri honetan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean adierazitako betekizunak urratzen badituzte. Jarduera hori honela sailkatuko da beraren garrantzia, proportzionaltasuna eta nahitasuna aintzat hartuz: arina, larria eta oso larria, eta irizpide hauen arabera:

- **Arina:** arintzat joko dira baldin eta kontratuaren funtzionamenduari eta eraginkortasunari eragiten badiote, baina maleziaz jokatzearen ondorio ez badira, pertsonentzat, animalientzat edo gauzetarako arriskurik sortzen ez badute, egindako lanen bizitza ekonomikoa gutxitzen ez badute, edo erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez badiote. Bertzeak bertze, agiri honetan ezarritako edozein eginkizun ez betetzea, larritasun handiagokotzat jotzen ez bada.
- **Larria:** Larritzat joko dira baldin eta, ikuskaritza eskasen ondorioz edo eskatutako lanen edo kontratuko zerbitzu eta eskakizunak betetzearen ondorioz, modu negatiboan eragiten badute instalazioen bizitza ekonomikoan, erabiltzaileentzako eragozpenak eta arriskuak sortzen badituzte edo kontratatutako zerbitzuak mankomunitateak kontrolatzeko edo ikuskatzeko kalte larria sortzen badute. Larritzat joko dira:
 - Kontratuaren gauzatzen den bitartean hiru hauste arin egitea.
 - Edozein hauste arin behin eta berriz errepikatzea.
 - Segurtasun eta osasun neurriak ez betetzea.
 - Kontratututako lan edo zerbitzuren bat ez ematea.
 - Kudeaketa unitateak kontratuaren gauzatzeari buruz emandako aginduak ez betetzea.
 - Kontratuaren gauzatzearen eskaintza ageri diren baliabide pertsonal eta materialak erabiltzeko edo esleitzeko konpromisoa ez betetzea.
 - Kontratuaren gauzatzeagatik jakiten diren aferen inguruan diskrezioz ez jokatea.
 - Kontratuan zehaztutako zerbitzuen gauzatzea partzialki ez betetzea.
 - Ezarritako epearen barruan kontratuaren formalizatzea kontratugileari egozten

ahal zaion arrazoi batengatik.

○ **Oso larria:**

- Kontratua gauzatzen den bitartean hiru hauste larri egitea.
- Edozein hauste larri behin eta berriz errepikatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.
- Mankomunitateari iruzur ekonomikoa egitea, errealitatearekin bat ez datozen agirien edo fakturen bidez edo bertze edozein bide erabiliz, dolurik ez badago ere.
- Kontratua modu ezegokian edo akastunean gauzatzea, bai kalitatean bai kuantitatean.
- Deialdiaren dokumentazioan txosten faltsuak aurkeztea, esleipenerako edo gauzatzerako irizpideekin lotuta.
- Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak urratzea.
- Kontratuaren gauzatzea 15 egunez edo gehiagoz gibeleraatzea edo etetea, baldin eta esleipendunari egozten ahal bazaio.
- Sekretu profesionalaren betebeharra urratzea edo datuen babeserako araudia ez betetzea.
- Txostenak faltsutzea.
- Elementu edo instalazio bat hondatzen uztea nahita.
- Aurkeztutako irizpideak ez betetzea.
- Agiri honetan ezarritako gauzatze baldintza bereziak ez betetzea.
- Kontratuaren eskubideak eta betebeharrak lagatzea kontratazio organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratugileak kontratuko baldintzak betetzen ez baditu, espediente bat jarriko da martxan, eta, han, kontratugileari entzunen zaio, Kontratazio Organoak ebazpena eman baino lehen; ondoren zehazten diren zigorrak ezarri ahal izanen dira, igortzen den hurrengo fakturatik kenduz edo, hala badagokio, bermetik hartuz.

Zigorrak ezartzeak ez du baztertzen Administrazioari balizko indemnizazioa ordaindu behar izatea haustearengatik.

c) Zigorren zenbatekoa: kontratuaren gauzatzea gibeleraatzen edo eteten den egun bakoitzarengatik, Kontratu Publikoen Foru Legearen 147. artikulua ezarritako zigorra ezarriko da. Horrez gain, honako zigor hauek ezarriko dira:

- Hauste arinak. Hauste arin bakoitzak esleipenaren zenbatekoren % 1eko zigorra ere ekartzen ahal du.
- Hauste larriak. Hauste larri bakoitzak esleipenaren zenbatekoren % 1,01 eta % 5 bitarteko zigorra ekartzen ahal du.
- Hauste oso larriak. Hauste oso larri bakoitzak esleipenaren zenbatekoren % 5,01 eta % 10 bitarteko zigorra ekartzen ahal du. Zigor hori % 20raino ailegatzeko ahal da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikulua ezarritako gauzatze baldintza bereziak urratzen badira.

28.- KONTRATUA INDARGABETZEA.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 160. artikuluan ezarritako kausa orokorrekin indargabetuko dituzte kontratuak.

29.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENAK.

Kontratuak izaera administratiboa izanen du eta agiri honek eraenduko du, bere klausula administratiboak eta zehaztasun teknikoak barne hartuta, eta, honako hauek aplikatu beharko zaizkio: Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, baita aplikagarria den gainerako araudia ere.

Agiri honek eta dagozkion gainerako eranskinek kontratu izaera izanen dute. Agiria eta kontratuaren bertze edozein dokumentu bat etortzen ez badira, agiria lehenetsiko da. Halaber, kontratugile esleipendunaren eskaintzak eta kontratua formalizatzeko dokumentuak kontratu izaera izanen dute.

Esleipendunak kontratuaren klausulak, kontratuaren gainerako dokumentuak eta gauzatzean aplikagarriak diren jarraibideak edo araudia ezagutzen ez baditu ere, ez da horiek betetzetik salbuetsita egonen.

Kontratazio organoak honako eskumen hauek izanen ditu: kontratua interpretatzea, hura betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoa dela-eta hura aldatzea, hura indargabetzea erabakitzea eta indargabetze horren ondorioak zehaztea; hori guzia Kontratu Publikoen Foru Legeak adierazten dituen mugen barruan eta ezartzen dituen eskakizun eta eraginaren mende.

30.- HELEGITEAK ETA ERREKLAMAZIOAK.

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta, hala, haren betebeharrak betetzetik eta xedapen hauen interpretaziotik eratortzen diren intzidentziak, lehenbizi, contratazio organoak ebatziko ditu.

Agiri honen eta hura gauzatzean ematen diren ebazpenen kontra, honako helegite hauek aurkeztu ahal izanen dira aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua aurkeztea, mankomunitatearen organoak ebatz dezan, hura baita ekintza administratiboaren egilea; hilabeteko epea dago horretarako, helegitea jaso duen ekintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzinera, eta, hala badagokio, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aitzinera.
- b) Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkeztea, Kontratu Publikoen Auzitegiak ebatz dezan, Kontratu Publikoen Foru Legeak 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez; horretarako, nahitaezko betekizuna da lizitatzailerek helbide elektroniko bat aurkeztea, jakinarazpenak bide telematikoen bitartez egin ahal izateko.

- c) Gorako errekurtsua, Administrazio Auzitegiak ebatz dezan, hilabeteko epean helegitea jaso duen ekintza jakinarazi edo argitaratu denetik.
- d) Administrazioarekiko auzi errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiak ebatz dezan, bi hilabeteko epean helegitea jaso duen ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aitzinera.

31.- DATUEN BABESA.

Kontratua gauzatzeak berekin dakar erakunde edo pertsona esleipendunak datu pertsonalak tratatzea. Horrek erran nahi du esleipendunak tratamenduaren arduradun gisa jarduten duela, eta mankomunitatearen gain daudela tratamenduaren arduradunaren erantzukizunak. Esleipendunak egingo dituen datu tratamenduak zerbitzua betetzeko beharrezkoak direnak izanen dira.

Klausula honek eta bertan ezarritako betebeharrak osatzen dute mankomunitatearen eta esleipendunaren arteko tratamendu enkarguaren kontratua, DBEOren 28.3 artikulua aipatzen duena.

Esleipendunak betebeharrak hauek betetzen dituela bermatu beharko du, IV. eranskinean ("Datu pertsonalen tratamendua") zehaztutakoarekin batera:

- a) Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak, edo datu horiek sartzeko jasotzen direnak, esleitutako kontratuaren xede den helbururako soilik erabiltzea. Inola ere ezinen ditu datuak bere helburuetarako erabili.
- b) Datuak mankomunitatearen jarraibideen arabera tratatzea. Erakunde esleipendunak uste badu jarraibideren batek datuen babesari buruzko edozein xedapen urratzen duela, berehala jakinaraziko dio mankomunitateari. Ezarri beharreko segurtasun neurriak mankomunitateari tratamenduaren arduradun gisa dagozkion Segurtasun Eskema Nazionalen aurreikusitakoei eta IV. eranskinean aurreikusitakoei dagozkienak dira.
- c) Erabateko konfidentzialtasuna gordetzea kontratua gauzatzeko eskura dituen datu pertsonalei buruz, bai eta kontratuaren tratamendutik eratortzen direnei buruz ere, edozein euskarritan lortu direla ere. Betebeharrak hori adjudikaziodunaren konturako tratamenduaren edozein fasetan esku har dezakeen pertsona ororentzat da, eta adjudikaziodunaren betebeharra izanen da haren mendeko pertsonen sekretu betebeharrak horren berri ematea, bai eta betebeharrak horri eustearen berri ematea ere, Zerbitzua ematen amaitu edo zerbitzutik bereizi ondoren ere.
- d) Kontratuaren xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda eramatea, eta datu horiek konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkien segurtasun neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Neurri horien berri eman behar die behar bezala. Era berean, mankomunitatearen eskura eduki behar ditu egiaztagiriak.
- e) Datuak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babesteko behar duten prestakuntza bermatzea.
- f) Kasu bakoitzean mankomunitatearen berariazko baimena izan ezean, datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea edo ez zabaltzea, ezta gordetzeko ere.
- g) Datuak Babesteko ordezkaria izendatzea, datuak babesteko araudiaren arabera beharrezkoa bada, eta mankomunitateari jakinaraztea, baita izendapena borondatezkoa denean ere. Era berean, esleipendunak bere ordezkari izendatutako pertsonaren nortasuna eta harremanetarako datuak jakinarazi behar ditu, datu pertsonalak babesteko.

- h) Baldintza agiri honen xede den kontratu prestazioa amaitu ondoren, konpromisoa hartzen du, mankomunitateak adierazitakoaren arabera, honako hauek itzuli edo suntsitzeko: eskuratu dituen datu pertsonalak; tratamenduaren ondorioz esleipendunak sortutako datu pertsonalak; eta datu horietakoren bat jasota duten euskarriak eta dokumentuak, inolako kopiarik gorde gabe; salbu eta legez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arau bidez datu horiek kontserbatzea baimentzen edo eskatzen bada, kasu horretan ez baita suntsitzerik izango. Hala ere, tratamenduaren arduradunak datuak gorde ahal izango ditu mankomunitatearekiko harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen denboran. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko dira, eta epe horren amaieran modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.
- i) Datuen barne transferentziarik ez egiteko, bertzerik adierazten ez bada.
- j) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 33. artikuluen arabera, berehala eta gehienez 24 orduko epean jakinarazi behar zaio mankomunitateari datu pertsonalen segurtasunean dagoen edozein hutsune, baldin eta ezagutzen badu, informazioa dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztiarekin batera, bai eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jarri duen edo izan dezakeen informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman izandako edozein akats ere, bai eta konfidentzialtasuna urratzea ere, kontratua gauzatzean lortutako datuak eta informazioak hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz.
- k) Pertsona batek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna mugatzeko eta adjudikaziodunaren aurrean banakako erabaki automatizatuen edo araudi aplikagarriak aitortutako bertze batzuen xede ez izateko eskubidea baliatzen duenean, esleipendunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Mankomunitateari euskara@bortziriak.eus helbide elektronikora. Komunikazioa berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubidea egikaritu dela jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, bai eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen agiriak eta bertzelako informazioak ere, eta eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio fede emaila ere bai.
- l) Ahal den guztietan, mankomunitatera joatea, hark eskubideak bete eta horiei erantzun ahal izan diezaion.
- m) Mankomunitatearekin elkarlanean aritzea segurtasun neurrien arloan dituen betebeharrak betetzeko, agintari eskudunei edo interesdunei arrakalak jakinarazteko eta/edo jakinarazteko, eta datu pertsonalak babesteari buruzko eraginaren ebaluazioak egiteko eta agintari eskudunei aitzinetik kontsultak egiteko, tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa kontuan hartuta.
- n) Araudiak hala eskatzen duenean, mankomunitatearen kontura egindako tratamendu jardueren kategoria guzien erregistro bat idatziz eramatea, gutxienez, DBEOren 30. artikulua eta DBLOren 31. artikulua aipatzen dituzten inguruabarrak jasoko dituen.
- o) Mankomunitatearen esku jartzea Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guzia. Ildo horretan, konpromisoa eta betebeharra hartzen ditu erakunde arduradunak edo arduradunak baimendutako bertze auditore batek auditoretzak (ikuskapenak barne) egin ditzan ahalbidetzeko eta horretan laguntzeko.

Azpikontratazioei lotutako tratamendu azpienkarguak: Azpikontratazioari dagokionez, baldintza agirian eta Kontratuei buruzko 2/2018 Foru Legean ezarritakoa beteko da. Hala ere, baldintza agiriak aukera ematen badu xede diren jarduerak azpikontratatzeko, eta esleipendunak

hirugarren pertsona batekin azpikontratatu nahi badu kontratuaren gauzatzea, eta azpikontratatik, kontratatuz gero, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, esleipendunak aitzinetik jakinaraziko dio mankomunitateari, datu pertsonalen zer tratamendu dakarren identifikatuz, mankomunitateak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontrataziorako baimena ematen duen edo ez.

32. - KONFIDENTZIALTASUNA.

Kontratugileak kontratua gauzatzen duen bitartean eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du.

Ezin izanen da hedatu esleipendunek eman eta konfidentzialtzat jo duten informazioa. Ondorio horietarako, lizitatzailleek erantzukizunpeko adierazpenean zehaztu beharko dute zer dokumentu jotzen dituzten konfidentzialtzat. Konfidentzialtasunaren adierazpenak ezin izanen du proposamen guzia hartu. Hala egiten badu, kontratazio organoak behar bezala arrazoituz zehaztuko du zer dokumentuk ez dieten eragiten sekretu tekniko edo komertzialei.

Arantza, 2024ko azaroaren 7an.

EGINBIDEA:

Konstarazteko Bortziriako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2024ko azaroaren 7an egindako bilkura arruntean onetsi zuela Bortzirietan udaleku irekiak antolatu eta kudeatzeko zerbitzu prozedura irekiaren bidez kontratatzeke plegu arautzailea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau ziurtatzen dut.

IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte

I. ERANSKINA

1. GUTUNAZALA: Administrazio agiriak

HONAKO HAU KUDEATZEKO KONTRATUA:

LIZITATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonia:

Faxa:

Hautatu lizitzaileari dagokiona:

✗ Bere izenean ari da

✗ Enpresa honen ordezkari gisa ari da:

Izena:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonia:

Faxa:

HONAKO HAU AZALTZEN DU:

- Bide telematikoen bitartez eginen diren jakinarazpenak jasotzeko, honako hau dela helbide elektronikoa, kontratazio publikoari dagokionez erreklamazioak eginez gero:

.....

- Kontratazioa eraentzen duen agiria ezagutzen duela eta konpromisoa hartzen duela hura gauzatzeko, hari eta aurkeztutako eskaintzari zorrotz jarraituz, eta, horretarako honako gutun-azal hauek aurkezten dituela:

-1. GUTUN-AZALA: Administrazio agiria.

-2. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

-3. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa.

.....(e)n, 202... (e)koaren (e)..... an.

LIZITATZAILEAREN EDO LIZITATZAILEEN SINADURA

II. ERANSKINA

1. GUTUNAZALA: Administrazio agiriak

KONTRATATZEKO BEHARREZKO BALDINTZAK BETETZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

HONAKO HAU KUDEATZEKO KONTRATUA:

LIZITATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonoa:

Faxa:

Hautatu lizitzaileari dagokiona:

✖ Bere izenean ari da

✖ Enpresa honen ordezkari gisa ari da:

Izena:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonoa:

Faxa:

Honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

- Hark/Nik ordezkatzeko dudako erakundeak (adierazi zer dagokion) betetzen dituela kontratatze baldintzak eta ez duela bere gainean Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22.etik eta 26.era arteko artikuluek zerrendatzen dituzten debekuetako bat bera ere.

- Esleipendun suertatuz gero, konpromisoa hartzen duela frogatzeko agiri honetan eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliozkoak direla, gehienez ere zazpi eguneko epean esleipena jakinarazi zenetik.

- Kontratua sinatu baino lehen eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela, kontratazioa eraentzen duten Klausula Administratibo Partikularretan adierazitakoaren arabera.

- Beraren xedeak edo jarduerak lotura zuzena duela kontratuaren helburuarekin eta badituela kontratua behar bezala gauzatzeko elementu pertsonal eta materialak.

- Indarreko lege xedapenek ezarritako zerga betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela, baita segurtasunari, lan osasunari eta lan arriskuen prebentzioari dagozkion betebeharrak ere.

- Baduela agiri honek eskatzen duen gaitasun ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala.

- Honako dokumentazio hau jotzen duela konfidentzialtat:

(...)

.....(e)n, 202... (e)koaren (e)..... an.

LIZITATZAILEAREN EDO LIZITATZAILEEN SINADURA

III. ERANSKINA

3. GUTUNAZALA: Formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa

HONAKO HAU KUDEATZEKO KONTRATUA:

LIZITATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonoa:

Faxa:

Hautatu lizitzaileari dagokiona:

✗ Bere izenean ari da

✗ Enpresa honen ordezkari gisa ari da:

Izena:

NAN:

Jakinarazpenak jasotzeko helbide fisikoa:

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa:

Telefonoa:

Faxa:

ESKAINZA EKONOMIKOA:

Kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen du honako eskaintza hauen arabera:

Eskaintza ekonomikoa:..... (zenbakiz eta letraz idatzi) -BEZik gabe-

IRIZPIDE SOZIALAK:

Kontratuan parte hartzen duten langileei genero berdintasunaren arloko eskubideei buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza ikastaroak edo jardunaldiak emateko konpromisoa hartzen dut honen arabera: (zenbakitz eta idatziz ordu).

.....(e)n, 202...ko.....aren(e)an

LIZITATZAILEAREN EDO LIZITATZAILEEN SINADURA

IV. ERANSKINA

Datu pertsonalen trataera

KOLEKTIBOAK ETA TRATATUTAKO DATUAK

Honako hauek dira TRATAMENDUAREN ARDURA DUEN erakundeak tratatuko dituen datuak dituzten interesdunen kategoriak:

- Herritarrak.

Plegu honen xede den kontratua gauzatzeko, esleipendunak honako datu mota hauek eskura ditzake:

- Identifikazio datuak.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.

INFORMAZIO ESKUBIDEA

Erakunde arduradunak, datuak biltzeko unean, eginen diren datu tratamenduei buruzko informazioa eman behar du. Informazioa emateko idazkera eta formatua arduradunarekin adostu behar dira datuak biltzen hasi aitzinetik.

SEGURTASUN NEURRIAK

Erakunde esleipendunak behar bertzeko bermeak eskaini beharko ditu datu pertsonalen tratamendua bermatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatzeko. Mankomunitatearen ardura da datu pertsonalen tratamendua, datuak babesteko araudiko betekizunen arabera, eta pertsona interesdunen eskubideen babesa bermatzen du. Horretarako, segurtasun neurri hauek ezarri beharko ditu gutxienez:

- Erabiltzaileen edo erabiltzaile profilen funtzioak eta betebeharrak definitzea eta dokumentatzea, langileen artean zabaltzea, bai eta horiek ez betetzearen ondorioak ere.
- Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak datu pertsonalen babesaren arloan behar duten prestakuntza bermatzea.
- Segurtasun intzidentziak eta urraketak jakinarazteko, erregistratzeko eta kudeatzeko prozedura bat izatea, DBEO n aurreikusitakoaren arabera, honako hauek jasoko dituenak: intzidentzia/bortxaketa mota, detektatzeko unea, jakinarazpena egiten duen pertsona, ondorioak eta neurri zuzentzaileak. Datu pertsonalen tratamenduaren osotasunari, konfidentzialtasunari, benetakotasunari eta erabilgarritasunari eragiten dion edozein gorabehera, tratamenduaren ardura duen erakundeak gauzatzen badu, berehala jakinaraziko zaio tratamenduaren arduradunari.
- Prozedura bat izatea datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamenduaren arduradun gisa tratamendua mugatzeko eskubideak kudeatzeko.
- Zifratze eta sasi-anonimizazio metodoak ezartzea, baldin eta euskarriak kudeatzen badira tratamenduaren ardura duen erakundearen edo arduradunaren lokaletatik kanpo.

- Kategoria berezietako datuak tratatzen dituzten aplikazioetan auditoretza eta erregistro sistemak (sarbide logak) sartzeara. Ez du datuak babesteko araudia beteko dela bermatzen ez duen tresnarik erabili behar.
- Erakunde esleipendunak, bertzeak beste, honako neurri hauek ezarriko ditu:
 - a. Natura, ingurumen edo industria arrazoiengatik kalteak izateko arriskua mugatzen dutenak (ura, sua, hezetasuna, tenperatura desegokia, etab.),
 - b. hornidura elektrikoaren akatsen aitzinean datuen osotasuna eta erabilgarritasuna babesten dutenak.
 - c. Informazioa eta sistemak ahalik eta denbora laburrenean eta daturik galdu gabe berreskuratuko ditu.
- Erakunde esleipendunak neurriak ezarriko ditu, tratamenduaren ardura duen erakundearen informazio sistemak segurtasun neurri egokiak izan ditzaten beti, informazioa galtzea, aldatzea edo iragaztea saihesteko, dagozkion eguneratzeak eginda. Mankomunitateko sistemetara konektatzen diren edo datu pertsonalak tratatzen dituzten ekipo guzietan gutxienez honako hauek izan behar dituzte:
 - a. Birusen kontrakoak, egunero aktibatzen eta eguneratzen direnak.
 - b. Firewall.
- Sarbide kontrola ezarri behar da, langileei esleitutako eginkizunen arabera, baimendutako datuak edo baliabideak ez eskuratzeko. Datu pertsonalak eskura dituzten kanpoko langileek ere baldintza berberak bete beharko dituzte.
- Sarbide kredentzialek argi eta garbi eta modu pertsonalizatuan identifikatuko dituzte erabiltzaileak. Kanpoko erabiltzaileen kasuan, datu pertsonaletara sartzeko baimena emanen zaie baimen egokiak dituzten erabiltzaileei, Sare Pribatu Birtuala (VPN) edo antzeko konexioen bidez, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko. Sartzeko baimen horiek baimendutako langileek bakarrik eman ahal izanen dituzte.
- Erakunde arduradunak zerbitzua emateko tratamenduaren ardura duen erakundearen sistemetara urrunetik sartzen denean, espresuki debekatuta dago tratamenduaren ardura duen erakundeak bere sistemetan edo tratamenduaren arduradunarenak ez diren euskarrietan datuak sartzeara.
- Tratamenduaz arduratzen den erakundeak identifikazio eta autentifikazio sistema pertsonalizatua izan beharko du. Erabiltzaile izenak eta pasahitzak ezin ulertuzko moduan biltegitatu beharko dira, eta aldizka aldatu beharko dira, urtean behin gutxienez, baimenik gabe sartzeko saiakeren muga errepikatuz.
- Gailu eramangarriek pasahitza izanen dute BIOS mailan.
- Informazio sistemen kokapenera fisikoki sartzeko kontrol sistemak izanen dira, giltza, txartel magnetikoa edo antzekoa, sarbide kodea, bereziki babestutako datuak dituen paperezko dokumentazioa giltzadun armairu, kaxoi eta abarretan gordeta egon beharko da, giltzadun ateen bidez babestutako eremuetan.
- Tratamenduaren ardura duen erakundeak prozedura dokumentatuak izanen ditu, arduradunaren kontura tratatzen dituen datu pertsonalen babes eta berreskurapen kopiak egiteko. Kopia euskarrietarako sarbidea mugatuta egonen da, baimenik gabeko sarbideak saihestuz.
- Sei hilean behin, babeskopien prozesua egiaztatuko da, baldin eta mankomunitatearen ardurapeko informazioa badute.

- Babeskopiak kopia egiteko erabiltzen diren ekipoak ez diren bertze leku batean gordeko dira.
- Paper formatuko dokumentuak baimenik gabeko pertsonak sartzea eragozten duten lekuetan artxibatu behar dira. Armairu, tiradera eta abarretan zainduta egon beharko du, irekitzea eragozten duten mekanismoekin.
- Era berean, dokumentuak izapidetzen edo lekualdatzen diren bitartean, horien ardura duen pertsonak zaindu egin behar du, baimenik gabeko sarbiderik egon ez dadin. Lekualdatzeko, sarbidea edo manipulazioa eragozten duten edo irekitzea oztopatzen duten mekanismoak erabiliko dira. Euskarriek etiketatuta egon behar dute, erakundearen barne mailan soilik ulertzeko moduko sistemen bidez.